



MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Bezeroak edozein negozio-ereduren funtsa dira eta haiek gabe enpresak ezin izango luke luze iraun. Merkatuaren segmentazioa egitean, bezero-talde bat edo hainbat egon daitezkeela ulertu behar dugu.

Horrela, bere ezaugarri komunetan oinarrituta, taldekatu ditugu, beren beharrak hobeto asetzeko.

KRESALAREN kasuan, 4 segmentu desberdin egin ditugu.





Gure produktu nagusia surf trajeak dira, beraz, bezeroak gehien bat:

1. Ur-kirolak egiten dituzten pertsonak izango dira.
2. Ekologiarekin, eta batez ere, itsasoa zaintzarekin konprometituta egongo dira.
3. Diseinuaren eksklusibotasuna baloratuko dute.
4. Surf-dendak ur-kirolen dendak, surf-eskolak...

